

EURIA

Errepika :

Euria tipi-tapa ba(ra)txe-ba(ra)txe hasten da.

Euria tapa-tapa azkar-azkar¹ ari da.

Kanpoan ibiltzen gira
burua tapatuta;
jostetan ari gira
putzuetan plisti-plasta.

Errepika.

Elementa² heldu da;

fite-fite³ barnera,

lasterka aterbera:

arrunt bustiak gira.

Errepika (bis).

¹ azkar-azkar : zinez

² elementa : erauntsia, euri uharra

³ fite : laster, azkar, zalu



HELBURUAK


AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantuaren erritmoa eta pultsazioa senditu. Jauzi edo keinu bat aurreikusi doinuaren arabera. Kantua gogoz ikasi. Zehaztasun eta zuzentasun erritmikoa landu.	◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatu bidez. ◆ Soinuen munduari adi izan; soinu zenbaiten ezaugarriak bereizi eta ezagutu. ◆ Soinu egite et entzute ihardueren arteko harremanari ohartu.	◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz; bere gorputza ezagutu; jokamoldea ihardueri egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu; parte hartu; besteekin harremanetan jarri; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere. ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.
MUNDUAN IHARDUN. Bi zangoekin putzuetan jauzi egin.	◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintzen burutzera ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.	◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Lexikoa gogoz ikasi. + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...). ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)


Haurrak xutik daude, errondan.

ERREPIKA : kantuaren erritmoari jarraikiz (haurrak tokian berean egonez).

- Eskuineko eskuarekin eskuineko izterrean jo. Molde berean, ezkerreko eskuarekin ezkerreko izterrean.



- Zangoekin lurra jo, eskuineko eta ezkerreko zangoak aldizkatuz.



LEHEN KOPLA : *beti errondan, eskuin aldera ibiliz, taupadaren arabera.*

Kanpoan ibiltzen gira ⇒
burua tapatuta ⇒
jostetan ari gira. ⇒
putzuetan plisti-plasta. ⇒

antzeztu

putzuetan jauziak antzeztu

ERREPIKA : lehen aldiko molde berean.

BIGARREN KOPLA :

<i>Elementa heldu da ; fite-fite barnera, lasterka aterbera : arrunt bustiak gira.</i>	⇒	antzeztu, errondan lasterrago ibiliz.
--	---	---------------------------------------

Beste proposamen zenbait :

1. *Baratxe* eta *azkar* bereizteko, adibide gehiago proposa genitzake tresna eta musiken bidez.
2. Putzuen itxuratzeke, uztaiak erabil genitzake (barnean/kanpoan kontzeptuak landu).
3. Entzumenaren lantzeko : uraren soinu ezberdinak entzunarazi. Adibidez : ur ttanttak, xurruta, botoila husten, komunak, dutxa, erreka, itsasoa... (balia daiteke erreka eta itsasoaren soinuen grabaketa : *J'écoute les sons de la Nature* KDa. Nashvert Production).

HIZKUNTZA HELBURUAK :

1. *Baratxe* eta *azkar* hitzak erabili.
**edun aditz lag.* : *Baratxe* jotzen du, dut, dugu...
Ezezko formak : Ez du, dut, dugu...*baratxe* jotzen.
Ergatiboa : Nork jotzen du *baratxe* ? Patxik jotzen du.
2. Barnean/kanpoan kontzeptuen lantzeko, uztaiak erabili.
Izan aditza: Barnean naiz, da...
Ezezko formak: Ez da, dira...barnean.
Non ? Non dira, gara...?
3. Entzumena.
Hiztegia : Ur ttanttak, xurruta...
Entzun aditza : Xurruta entzuten.../ entzun...
**edun aditz lag.* : Xurruta entzuten dut, dugu, duzu...
Ezezko formak : Ez dugu xurruta entzun.
Plurala : Ur ttanttak entzun ditut.



Kantuaren erranaldi bat idatz ezazu marrazkiaren zuriunean eta gero marrazkia margo ezazu.

Osatzeko :

- **entzun** *Laidaren euritako urdina* bideo kaseta. Imanol Urbiet.
- **entzun** *Klin-klan euri sortak* kaseta. Imanol Urbiet.
- **entzun** *Plisti-plasta* kaseta. Imanol Urbiet.
- **entzun** *Euria. Marijane kanta zan !* KDa. Oskorri.
- **ikus** *Euri tantak*. Gure abestiak. 1.2. Heziketa musikal naturalerako abestiak.
- **ikus** *Atertu du euria olerkia*. A. Kazabon. Bazen behin, behin bazen. Elkar.

